

HARAN SUBMEDITERRANEOAK

ARABA



A•31 Fontecha eta Komunioiko artadiak

Katalogatutako artadiak Ebroko nekazaritza—haranaren erdian kokatuta daude, Turisko mendilerroaren inguruan eta ibaiertzen artean. Legar dezente duten lur hareatsuetan sortutako ibai—terrazadun gunek bat da.

Lur arin eta lehorretan berezko den artea da toki hauetan ere bereizgarri, baina landutako soroek muino batzuetako enklabe txikiak mugatu dute, hainbat kontserbazio—mailarekin. Azpimarratzekoa da zuhaitzi hauetako flora interesgarria, ibaiaren eta mendilerroaren arteko trantsizio—eremu honetako ezaugarri egokitu baitzaie.

Hemendik hurbil dagoen Erdi Aroko Fontecha herrira joaten diren bisitari batzuek eremu hauek aisialdi—leku gisa erabiltzen dituzte; horren lekuko ditugu bertan utzitako sutzarren hondarrak, sute—arrisku handia sortzen dutenak.



A•32 “San Formerio” mendia

Lautada bilakatutako San Formerio mendiaren gailurretik Trebiñoko nekazaritza—arroaren eremu zabala ikusten da. Mendi—hegal handiak jatorri atlantikoko espezieak eta Mediterraneoko beste batzuk nahasten dituen trantsizioko landaredi interesgarri batez estalita daude.

Enklabe honetako basoen aberastasunak kalte handia jasan zuen duela urte batzuk gertatutako sute baten ondorioz; baina, halere, artez eta erkametez osatutako eremu handi batzuk kontserbatzen ditu, basoko era askotako hegazti—faunarekin eta Mediterraneoko espezie batzuekin; esate baterako, txaradi—sugandila eta eskailera—sugea.

Antzinako bide—gurutze garrantzitsu batean kokaturik dagoen leku horren garrantzi estrategikoa esparru honetako populaketan arrasto ugari frogatzen dute; besteak beste, zeramika zeltaren hondarrak, Erdi Aroko hilobiak eta egungo santutegia.

A•33 “El Encinal” mendia

Lantaron, Erribera Beitia eta Erribera Goitia herriak batez ere nekazaritza—jardueran aritu dira duela gutxi arte. Erliebe irregularreko gunek honetan, mendi—hegaleko eta haran—hondoko eremuak muinoetako goragune txikiekin tartekatzen dira. Toki hauetako batzuek inguruko jatorrizko basoaren

enklabe batzuk gordetzen dituzte, funtsean artadiak eta erkameztiak. Horien adibide adierazgarria dugu “El Encinal” mendia eta, gainera, kontserbazio—egoera onean dago, baina inguruan sasi eta uztondoen erreketa ohikoak izaten direnez, erretzeko arriskuan daude etengabe.